

LIBURUA

—Norena da **liburu** hau?

—Nirea! —esan zuen Oierrek.

—Nondik hartu duzu? —**galdetu** zion amak.

—Herriko **liburutegitik**.

—Irakur dezaket?

—Ez, denbora **luzean** itxoin dut hartu **ahal** izateko. Denek irakurri nahi dute.

—Eta zergatik?

—Oso istorio interesgarriak kontatzen **dituelako**.

Oierrek, **aldiz**, ez zuen ezagutzen **liburu** horren benetako historia. Orduan bai, denek irakurri nahi zuten **liburua**, baina hasieran... Historia guztia kontatzea nahi **al** duzue?

Liburutegi hartako **laugarren soilairuko apalategian liburu laranja** bat zegoen. **Arratsaldero**, **liburutegian** ume asko **ibiltzen** ziren, baina **liburu laranja** ez zuen inork aukeratzen.

—Ez dut **ulertzen**, nire barruan abentura **pila** daude! Erabat asperturik nago **apalategi** honetatik ezin atera! Nik umeen etxeak ezagutu nahi ditut, **kalea** ikusi, umeek nirekin irri egin **dezatela**...

Liburuaren barruan **lehoi** bat bizi zen eta bertan bere istorioak kontatzen ziren. **Lolo lehoia** zuen izena eta gustuko zuen **lo** egitea, **laztanak** jasotzea eta **limonada** edatea. Oso **libre** sentitzen zen bere ipuinean bera bakarrik **zegoelako**, baina triste **aldi** berean, **lagunik** ez zuelako.

Gau batez, zeozer **aldatu** behar **zela** pensatu zuen, eta bere **leizeko leihora hurbildu** eta **liburuarekin** hitz egiten hasi zen.

—**Liburu**, mesedez, zerbait egin beharko dugu! Biak asper-asper eginda gaude, umeek ez zaituzte aukeratzen eta. Zergatik ez dituzu nire istorioetan **lagun** gehiago jartzen? **Liztorrak**, **loreak**, **lehoinabarrak**, **loroak**... Umeek **animalien** abenturak irakurri nahi dituzte, eta ez **lehoi** aspertu baten komeriak.

—Aizu, **lehoia**, **lasai** egon! Egoera ez da hain **larria**; ipuin honetan denetarik dago: **leku polit** asko, **lokatzez** betetako **lakuak**, **gatzelu liluragarriak**, **laranjazko galletak**, **lamiak**... Oso **liburu lodia** naiz eta gauza asko kontatzen ditut bertan; abentura asko bizi dituzu! Agian herri honetako umeek ez naute ikusten, eta horregatik ez naute aukeratzen.

—**Laranja** eta **lodia** zara!!! Bai, ikusten zaituzte, baina aspergarria zara!!!

Lolo lehoia triste zegoen, eta **malkoak** erortzen hasi zitzaizkion begietatik. **Laster lehortu** zituen

eskuekin, baina **liburua** konturatu zen:

—**Lasai, Lolo, ulertu** dut zer gertatzen zaizun; **lanean** jarriko naiz eta **lagunak** aurkituko dizkizut. Ea **horrela** biak **alaiago** egon gaitezkeen.

Gau hartan, **liburua lanean** hasi zen. Pertsonaia berriak asmatu zituen **liburuan** sartzeko: **liztorra, lorea, lehoinabarra** eta **loroa**. **Lau lagun** berri. Ziur zegoen **lehoiari**, eta batez ere herriko neska-**mutilei**, berak asmatutako istorioak gustatuko **zitzaizkiela**, oso barregarriak **zirelako**. **Leher** eginda bukatu zuen eta **lo** geratu zen.

—**Lortu** dut, **lortu** dut! **Lau lagun** berri dauzkat!!!... **Liburu, liburu**, esnatu!

—**Lo nengoen, motel!** Bai, bai, gau osoan idazten aritu naiz; istorioak zure gustukoak izatea espero dut.

—Zer gertatuko zait?

—Hori gero jakingo duzu! Ezin dizut orain dena kontatu, baina gauza barregarriak, **beldugarriak, politak** biziko dituzu zure **lagunekin**.

Liburua, lehoia bezala, oso urduri zegoen. Goizean, **liburutegia zabaldu** eta ume batek hartu zuen. **Liburua** irakurtzen hasi zen eta **laster lagunei** deitu zien:

—Etorri, **hurbildu!!! Liburu** hau oso dibertigarria da!!!!

Liburua eskuz esku **ibili** zen egun osoan eta **arratsalde** horretan bertan ume batek bere etxera eraman zuen. Gauean, umea **lotan** zegoen bitartean, **liburua** eta **lehoia** abesten hasi ziren:

—**La, la, la la, la, la, la, ra, laaaaaa!!!**

—**Lan** ederra egin duzu, **liburu!** Nik **lagunak** dauzkat eta zuk ez duzu aspertzeko denborarik. Egund hartatik aurrera, ume guztiak **liburutegira hurbiltzen** hasi ziren **liburu laranjaren** barruan zeuden **Lolo lehoiaren** istorioak irakurtzera.

LOLOK LAGUNIK EZ DAUKALA?

EZ DA MAKALA

LIBURUAK BEREHALA

EGINDAKO EGINAHALA,

ETA, HALA,

ABENTURA MUNDIALA!

